

Abordatzera!

Gaurtik hasita ez da ekitaldirik eta giro onik faltako Donostian

Donostiako inauterien antolatzaileek urtero aukeratzen dute gai bat hitarrei moztarria proposatzeko. Aurten piratak izango dira gehiengo Donostiako kaleetan. Bat baino gehiago ikaragarritzko gogoz egongo da dagoeneko inauteriak hasi eta moztarria janzteko. Beraz, hurrengo egunetan Kontxako hondartzatik bueltatxo bat egiteko asmoa baduzu, ez larritu «abordatzera!» garrasia entzunez gero.

Donostiako inauterietako ekitaldiak gaur bertan hasiko dira Londres hotelean. Bertan, Momo Jainkoari harrera egingo zaio, eta giltzak eman- go zaizkio. Ondoren, Kresala dantza taldeak *Aratuste-Euskal Inauteria* ikuskizuna eskainiko du, eta konpartsen aurkezpena ere egingo da.

Aurkezpenak egin ostean guztia prest izango da piratek hiria hartzeko lorua sorbaldan dutela. Inauterien hasiera ofiziala bihar egingo da arratsaldeko 19:31tan. Pregoia irakurtzeko gonbidatu bereziak izango dira aurten: *Caiga Quien Caiga* telebista saioko aurkezleak. Hala ere, ez dira guztiak etorriko. Mario Caballero, Tonino Guillan eta Sergio Pazos izango dira telebista saio horretako ordezkariak. Lanean erakusten duten be-

zain besteko umorea erakusten badute saltsarik ez da faltako bihar udaletxe inguruan.

Piratak dantzan ikusteko aukera

Musikak aurten ere leku berezia izango du Donostiako inauterietan. Biher Undrop talde arrakastatsuak bere giro dantzagarriekin alaituko du Donostiako gaua. Piratak dantzan ikusiko ote ditugu? Ez da izango hori inauterietan izango den kontzertu bakarra. Izan ere, larunbatean Los Sencillos taldeak ere bere ikuskizuna eskaintzeko asmoa du.

Inauteriak beste jaietatik bereizten dituen zer-bait baldin badago, moztarria dira. Eta moztarriak protagonista diren ekitaldi bat aipatu behar bada, inauteri kabal-gata aipatu genuke

denok. Aurten bi kabal-gata egingo dira: larunbatean eta astelehenean.

Bestalde, aipatu beharra dago aurten ere *Guinness* liburua sartzeko saikera bat egingo dela. Aurten puxikak puztea izango da donostiarrak hartu beharko duten lana. Horretarako 3.000 puxika banatuko dira. Beraz, arnasa sakon hartu, eta gogor putz egin.

Caiga Quien Caiga telebista saioko aurkezleak izango dira aurtengo inauterietako pregoilariak



Undrop taldeak kontzertua eskainiko du bihar.

EGUNKARIA

egitaraua

Martxoak 2, osteguna

19:16 Momo Jainkoari harrera eta giltzak ematea, Londres hotelean.
20:01 *Aratuste-Euskal Inauteria*, Kresala dantza taldearen eskutik, piraten kobazuloan.
21:01 Konpartsen aurkezpena, Young Play diskotekan.

Martxoak 3, ostirala

19:31 Pregoilariari harrera (*Caiga Quien Caiga*) Pasay fanfarrearekin, Maria Cristina hoteleko atarian.
19:46 Pregoira! Denok Pirata itsasontziaren atzetik kalejira pregoilariari lagunduz.
20:01 Inauteri pregoia *Caiga Quien Caiga*ren eta Momo Jainkoaren aurkezpena, piraten kobazuloan.
23:01 Undrop taldearen kontzertua, piraten kobazuloan.

Martxoak 4, larunbata

11:01 Goiztirietara! Kalejira, Sarriegi plazatik Londres hoteleko.
11:31 Goiztiriak Momo Jainkoari. Herriarrek kantuz agurtuko dute Momo Jainkoa, Londres hotelean.

Martxoak 5, igandea

12:11 Kalejira udaletxeruntz.
12:31 Udak Batzaren harrera inauterie, udaletxe batzar aretoan. Aginte aldatzea alkatearen eskuetatik Momo Jainkoaren etara. Txantxetako udal batza.
17:01 Inauteri kabal-gata. Konpartsa eta karroza lehiaketa, hiriko kaleetan zehar.
18:01 Gitarra kontzertua Igualea eta Donostiako gitarra orkestrarekin, udaletxe batzar aretoan.
20:01 Helduen arteko moztarria lehiaketa parodiarekin, Boulevardean.
20:31 Dantzaldi pirata. Erritmo latinoak Europako txapeldunekin: Natalia eta Fermin, piraten kobazuloan.
23:01 Pirata ginkana, tonelen lasterketa, jokuak..., Boulevardean.
00:01 Los Sencillos taldearen kontzertua, piraten kobazuloan.

Martxoak 6, astelehena

11:31 Diana, kalez-kale.
12:01 Haur festa. Altxorraren bilaketa, Alderdi Ederren.
12:31 Altxorraren banaketa. Puxi-

ken banaketa *Guinness* errekorra lortzeko, Alderdi Ederren.
13:01 Karibeko ekaitz handia. *Guinness* liburua marka jartzeko saikera, Alderdi Ederren.
13:16 Bukaneroen bazkaria, piraten kobazuloan.
18:01 Inauteri kabal-gata.
19:01 Diskofesta, piraten kobazuloan.

Martxoak 7, asteartea

12:16 Groseko Alegia konpartsa-kin kalejira.
13:01 Arrantzale-Ander konpartsa eta Los Incansables fanfarrearekin kalejira.
16:01 Haur festa pirata handia, Aquariumeko terrazan.
18:01 Haur kabal-gata.
18:01 Jaialdi handia zaharrentzat Donosti Orkestrarekin, piraten kobazuloan. Inauterietako pirata printze eta printzesaren hautaketa.



urrats
euskaltegia

Katalina Erauso, 21 behea
Tel.: 943 46 55 93
E-mail: urrats@jalgi.com
AMARA BERRIA



Konstituzio plaza, 5 - 2.
Tel.: 943 42 49 10
E-mail: ilazki@jalgi.com
ALDE ZAHARRA

HITZEZ
Euskaltegia



Kolon Pasealekua, 5 behea
Tel.: 943 27 81 55
GROS